

EUSKALTZAIN OHOREZKO

Amak eta aitak mundura ekarri gintuztenean euskara eta euskararen maitasuna txertatu zizkiguten. Gaurko egun honetan eurek txerto hura ematean egindako opariagatik esker ona adierazi nahi diet zuon lekukotasuna baliatuz.

Udalerri erdaldun batean bizi baginan ere, gurasoen ardurari esker, beti gorde genuen euskara. Hala ere, nerabegaroko lagunarte erdaldunaren eraginez euskararen ahulduak eta birrinduak ginen. Eta orduan, herriko koralean lehenik, eta geroxago Bilboko San Anton koralean (bertan euskarazko kantuak kantatzen ziren batez ere) musikaren tirria piztu zitzaidan nire barrenean. Ezin geldituzkoa zen tirria hura. Eta musikarekin kantua aurkitu nuen. Musika eta hitzak elkartzea magikoa baita. Espresatzeko bezala influentzia eragiteko arma hoberik ez zegoela ere laster ikasi nuen. Honela, musika eta euskara elkartu nituen.

Eta hori jarraiki euskal poetak eta musikari herritarrak topatu nituen. Eta ni neu ere kantu-egile bihurtu nintzen. Ibilian Kontserbatoriora hurbildu nintzen, eta musika klasikoa eta euskal klasikoak aurkitu nituen. Geroztik ez naiz gelditu «arte» horiek lantzen, kantatzen, idazten eta irrati-saioetan aurkezten.

C. Lévi-Stauss antropologoak agertu zuenez, musika eta mitoa kultur forma puruak baitira (pintura ez bezala, zeinak naturatik jasotzen baititu bere baliabideak), eta zentzua produzitzen dute banakoen bizitza afektiboan edo gizartean errotuz. Giza eta gizarte zientzien misterio gorena deitu zuen musika. Aitortu zuenez, musikaren bidez bere baitan haurtzarotik oharkabean zeramana itzartuz historia-aurreko gizarteetara ailegatzeko elementuak aurkitu baitzituen.

Nik Euskaltzaindiari zerbait itzultzekotan orain artekoa jarraituz egingo dut. Pozten naiz musika eta euskara lantzeko eginahala baliokotzat eman izan delako. Nire esker beroenak hala ikusi dutenei.

Maite Idirin

Bilbon, 2014ko uztailaren 18an